

GIZARTEA ▶

# Oiangu Publikoa eta Bizirik plataforma aurkeztu dute

Kultura, kirola eta irakaskuntzako aurpegi ezagunek bat egin dute taldearekin

MAIDER DEL OLMO

«Oiangu Publikoa eta Bizirik» plataforma aurkeztu zuten, atzo, Ordizian. Ekitaldia Barrena Kultur Etxean egin zen, eta herritar ugari parte hartu zuten. Goraino bete zen aretoa. Oiangu guztion gozamenerako izango den leku publikoa aldarrikatu zuten. Haien hitzetan, «doakoa, hesirik gabea, bizia, guztiona eta guztiontzat, negozio bihurtuko ez den gunea izan dadin».

## Sinadura bilketa

Gaur eta bihar sinadurak bilduko dituzte plazan, Oianguko egitasmoaren aurka. Gaur goizean 12:00etatik 14:00etara; arratsaldean, berriz, 18:00etatik 20:00etara. Bihar goizez jasoko dituzte sinadurak 12:00etatik 14:00etara, plazan baita ere. «Gure iritzia eman nahi dugu eta iritzi hori kontua har dezatela eskatzen dugu», esan du plataformak.



Jende asko hartu zuen parte, atzo, plataforma berriaren aurkezpenaren. ARKAITZ APALATEGI

KULTURA ▶

## Urrup antzerki taldeak 'Nire jostailuak kutxan' lana eskainiko du gaur

Haurrentzako antzerkia da; saioa 17:00etan hasiko da Ordiziako Herri Antzokian

M. DEL OLMO

Ordiziako Urrup taldearen musika antzezlana izango da gaur Herri Antzokian, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Valle Hildagoren 'Nire jostailuak kutxan' lana neskatala baten inguruko istorioa da. Betiko jostailuak eta lagunak alde batera utzita teknologia jokuekin itsutuko da gazetxoa. Eta ez dio beste ezeri ez inori kasurik

gingo. Haren katuak bereak eta bi egingo ditu umearen arreta lortzeko. Baita bere familiak ere.

## Obra ikusgarria

Antzezlanean hamar aktorek parte hartzen dute. Zuzeneko musika eskaintzen dute, gainera. Ikusgarritasun handikoa da. Aktoreek jantzi deigarriak dituzte soinean. Urrup



'Nire jostailuak kutxan' antzezlanoen aktoreak. GOIERRIKO HITZA

antzerki taldekoen arabera, umeentzat apropos egindakoa baina helduek ere gustora ikusiko dutena. Bertan parte hartzen duten aktore denak goierriarrak dira.

'Nire jostailuak kutxan' obra Goierriko hainbat herritan antzeztu dute dagoeneko. Gaurko emanaldira ere jende asko hurbiltzea espero dute Urrup taldeko kideek.

EUSKARA ▶

## Euskalkiez eta Goierriko hizkeraz ikastaroa

Euskararen aholku batzordeak antolatatu du; izena emateko epea zabalik dago

M. DEL OLMO

Apirilaren 9, 16, eta 23; eta maiatzaren 7 eta 14an egingo dute ikastaroa Ordiziako Barrena Kultur Etxean. Izena emateko epea apirilaren 1ean amaitzen da. EGA edo antzeko tituluren bat dutenentzako ikastaroa da, 20 ordukoa. Orduetgia honako hau da: 00etatik 11:00etara eta 11:30etik 13:30era. Ikasle kopurua gutxinez zortzi eta gehienez hamabostekoa izango da, eta 50 euro balioko du. Ikasleentzat eta Hitzarokoentzat, berriz, 40 euro. Izena emateko epea apirilaren 1ean amaitzen da.

Ikastaroaren helburua euskalki ezberdinetako testuak aztertuz ezaugarri nagusiak bereiztea da. Euskara batuko testuak euskalki jakin batera transkribatzea eta alderantziz, euskalkitik euskara batura. Euskalkiak aztertze lan-eskema bat ere adostu nahi dute. Informazio gehiagorako honako telefono honetara deitu ahal da: 943 80 56 22.

ERRUGBIA ▶

## Aymak Usap Barcelonaren aurka jokatu du bihar

M. DEL OLMO

Ayma Ordiziako Bartzelonan jokatu du igande honetan eguerdikoa 12.00etan Usap taldearen kontra. Aymako mutilak lehenengoak dira Ligan eta postu horri eusten saiatuko dira igandeko norgehiagokan. Partida zaila izango dute. Ayma Ordiziako en arabera, talde indartsua da kataluniarra, jokalar oso onak dituena. Nola nahi ere, ilusioz ari direla lanean azaldu du Ordiziako taldeak. Mailaz igotzea da euren erronka nagusia. Aukerarik ez dute galduko esan dutenez.

**SAN BENITO IKASTOLAKO BERRIKUNTZA LANAK (4.FASEA)**  
 ESLEIPENERAKO DEIALDIA  
 AURREKONTUA: 242.759,4 €  
 PLEGU ADMINISTRATIBOA, PLANOAK ETA AURREKONTUA  
 Beasaingo Urbegi inprimategian daude.  
 Intersatuak ekarri proposamenak apirilaren 22rako.  
 Euskadi enparantza z/g 20010 LAZKAO Tel.:943880800 Faxa: 943881816  
 lazkaa@ikastola.net

Karta zerbitzua  
 Lantxo manualak  
 Eramateko prestatutako platanak

**Rubiorena**  
 JATETXEA

Zaldizurreta,7 (barianteko loturaren ondoan) ☎943 88 57 60  
 20200 BEASAIN (Gipuzkoa)